



2002/05/10eko prentsa-oharra

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT)**2002ko lehen hiruhilekoa**

EUSKAL AE-KO TXIKIZKAKO SEKTOREAREN SALMENTAK %1,5 HAZI ZIREN 2002KO LEHEN HIRUHILEKOAN

Txikizkako merkataritza ez-espezializatuak (%3,8) ohikoak edo espezializatuak (%0,5) baino dinamismo handiagoa erakutsi du

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektoreak %1,5 gehitu zituen salmentak 2002ko lehen hiruhilekoan, balio nominaletan, Eustatek eskaintzen dituen datuen arabera. Balio errealetan, hala ere, %0,8ko jaitsiera gertatu da salmentetan, aurreko urteko aldi beraren aldean.

URTE ARTEKO HAZKUNDE TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2000	I	3,0	3,4	1,9
	II	0,6	-0,5	3,2
	III	0,7	-0,3	2,8
	IV	1,4	3,3	-2,8
2001	I	2,6	3,4	0,7
	II	1,8	2,1	1,1
	III	-0,5	0,2	-1,8
	IV	-2,0	-2,9	0,0
2002	I	-0,8	-1,4	0,4

Iturria: EUSTAT

Azalera ertain eta handietako merkataritza (ez-espezializatua) %3,8 hazi da lehen hiruhilekoan, balio nominaletan. Behin prezioen igoeraren eragina deskontatuz gero, urte arteko tasaren aldakuntza %0,4koa da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean (%0,0).

Txikizkako merkataritza ohikoak (espezializatuak) %0,5 igo ditu salmentak 2002ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Igoera nominal hori, behin prezioen igoeraren eragina deskontatuz gero, %-1,4 bihurtzen da, balio errealetan.

Txikizkako merkataritza-sektorean enplegatutako pertsonalak %1,5eko igoera izan du 2002ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Enpleguaren hazkunderik handiena txikizkako merkataritza ez-espezializatuan gertatu da (%3,3), sektore espezializatu edo ohikoaren aldean (%1,0).

Herrialde historikoka, txikizkako sektorearen salmenta nominalen hazkunde handiena Gipuzkoan gertatu da (%2,4ko urte arteko igoera), txikizkako merkataritza ez-espezializatuaren igoera handiari esker (%6,4). Haren atzetik, Bizkaia dago (%1,3ko aldakuntza positiboa indize orokorrean), eta zertxobait urrunago Araba dago (hazkunde neurritsuagoa, %0,2koa).

Balio errealean, salmentak Gipuzkoan baino ez dira igo (%0,2). Bizkaian (%-1,1) eta Araban (%-2,3), aldiz, aldakuntza negatiboak gertatu dira bi herrialde horietako salmenta errealean.

Txikizkako merkataritza-sektorean enplegatutako pertsonalari dagokionez, 2002ko lehen hiruhilekoan, urte arteko gehikuntza bat gertatu da (aurreko urteko hiruhileko beraren aldean) Araban (%3,8) eta Gipuzkoan (%3,2); Bizkaian, berriz, jaitsiera txiki bat izan da (%0,2koa).

Argibide gehiagorako, deitu hona:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.:+34-945 017500 Fax:+34-945 017501 E-mail: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.:+34-945 017505 Fax:+34-945 017501 Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	---